# DONEJAKUE BIDEA BIZIKLETAZ
## EL CAMINO DE SANTIAGO EN BICICLETA






## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Euskadin, Done Jakue Bidea oinez egiteko seinalizatuta dago, UNESCOk Munduko Ondare izendatutako ibilbide batetik. Gida honetan, zakuto eta guzti mendi-bizikletaz egiteko zailenak izan daitezkeen zatiak saihesteko hainbat aukera proposatuko dizkizugu. Kontuan izan zenbateko sasoi-puntua duzun zein bide egingo duzun erabakitzeko garaian.

*El Camino de Santiago por Euskadi está señalizado para su realización a pie por un trazado que ha sido nombrado Patrimonio Mundial por la UNESCO. En esta guía te proponemos diversas opciones para evitar los tramos del camino que pueden resultar más complicados para una bicicleta de montaña con alforjas. Valora tu forma física a la hora de decidir el camino que vas a realizar.*

Done Jakue bidea ez dago bizikletaz egiteko seinalizatuta. Lor ezazu GPS bat edo zure smartphonean ibilbidea markatuko dizun app bat.

*El Camino de Santiago para bicicletas no está señalizado como tal. Hazte con un GPS o una app. con el trazado a realizar en tu smartphone.*

Ez ahaztu kaskoa, arropa islatzailea, giltzarrapo on bat, eguzkitarako betaurrekoak, eguzkitarako babesa eta bizikletan oinarrizko konponketak egiteko beharrezkoa den materiala.

*No olvides llevar casco, ropa reflectante, un buen candado, gafas de sol, protección solar y material necesario para realizar las reparaciones básicas.*

Kontu handiz ibili errepideko zatietan.

*Extrema la precaución en los tramos de carretera.*

Oinezko erromesengana hurbiltzen zarenean, mantsotu abiadura haien ondotik igarotzean.

*Cuando te acerques a peregrinos a pie, reduce la velocidad al pasar a su lado.*

Kontuan izan zenbait aterpetxetan oinezko erromesek lehentasuna izan dezaketela.

*Ten en cuenta que en algunos albergues los peregrinos a pie pueden tener preferencia.*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

Arabako hiriburutik indarberrituta aterako gara, euskal lurraldean barrena azkena izango dugun etapa honetan. Astorgatik Bordelerako Iter XXXIV galtzada erromatar zaharrak jarraitu zuen noranzko berari jarraituko diogu; galtzada hori, mendeak igaro ahala, N-1 errepide bihurtu da Arabako tartean. Trebiñoko enklabean Argantzun igaro ondoren, aukeratu dezakegu Briñasen barrena Errioxarantz joatea edota Miranda de Ebron barrena Burgoserantz, Erronkaritik datorren eta Santiagora doan Frantziako Bidearen trazadurarekin bat egiteko.

*Saldremos de la capital alavesa con renovadas fuerzas en ésta que será nuestra última etapa por tierras vascas. Seguimos la misma dirección que siguió la antigua calzada romana de Iter XXXIV de Astorga a Burdeos y que con los siglos ha dado paso a la N-1 en su tramo alavés. Tras pasar La Puebla de Arganzón en el enclave de Treviño, podremos optar por seguir hacia La Rioja por Briñas o hacia Burgos por Miranda de Ebro para enlazar con el trazado del Camino Francés que, procedente de Roncesvalles, se dirige a Santiago.*

KMZ

GPX






| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| LA PUEBLA DE ARGANZÓN (ARGANTZUN) | LANGRAIZ OKA/ NANCLARES DE LA OCA | GOMETXA | ARMENTIA | VITORIA-GASTEIZ |
| Km. 20 | Km. 13 | Km. 5,5 | Km. 2,8 | Km. 0 |

## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Langraiz Okatik hurbil, kilometro pare bat iparralderantz desbideratuz, Tresponde eta Villodas artean Iruña Veleia aurkituko dugu, Arabako eta Euskadiko aztarnategi garrantzitsuenetako bat, 80 hektareako azalerarekin eta 1.500 urteko historia etengabearekin.

*Cerca de Nanclares de la Oca, desviándonos un par de kilómetros al norte, entre las localidades de Trespuentes y Villodas encontramos Iruña Veleia, uno de los yacimientos más importantes de Álava y de Euskadi, con una extensión de 80 hectáreas y 1.500 años de historia continuada.*





Armiñonen eta Rivabellosan Zadorra eta Bayas ibaien gaineko Erdi Aroko zubiek, 6 eta 4 arkurekin hurrenez hurren, antzinako mandazain, bidaiari eta erromesen iragandako garaietara itzularaziko gaituzte.

*Los puentes de origen medieval sobre el Zadorra y el Bayas en Armiñón y Rivabellosa con 6 y 4 arcos respectivamente nos harán retrotraernos a tiempos pasados de antiguos arrieros, viajeros y peregrinos.*

Etaparen azken tartean, Briñaseko noranzkoan, Erdi Aroko benetako bitxien albotik igaroko gara, adibidez Zabalateko gaztelua edo Gatzaga Buradoneko hiribildu harresiduna. Ez geratu horiek ezagutu gabe, denboraz ondo bazabiltza!

*En el tramo final de la etapa dirección Briñas, pasaremos cerca de verdaderas joyas medievales como el castillo de Portilla o la villa amurallada de Salinillas de Buradón. ¡No te los pierdas si vas bien de tiempo!*






## Bidezatia / *Tramo*
## VITORIA-GASTEIZ > LA PUEBLA DE ARGANZÓN (ARGANTZUN)

DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA

km

**0** **GASTEIZ.** Erdi Aroko almendratik hego-mendebalderantz jarraitzen dugu. Katedral berritik hurbil Floridako ibilbideari eta Fray Francisco Vitoria ibilbideari jarraitu beharko zaie Armentiarako noranzkoan. Erromesen ibilbidean barrena, hirigunearen irteeran biribilgune batera iritsiko gara eta A-4163 errepidearen bazterbidetik jarraituko dugu Gometxako herrigune txikiraino.

**5,5** **GOMETXA.** Oinezkoentzako Bidean dagoen San Migeleko Gainerako igoera zaila saihesteko aukera gisa, txirrindulariek N-102 errepidearen parean jarraitu dezakegu A-4104 eta A-4102 errepideetan barrena. Txakurzaindegi batera iritsi aurretik azken horretatik desbideratu behako gara eta autobidetik aldendu gabe jarraitu beharko dugu biribilgune batera iritsi arte, non A-3302 errepidearekin bat egingo dugun. Biribilgunean Subillabide-Mendozarako noranzkoa hartuko dugu autobidearen azpitik igarota, eta behin beste aldean gaudenean, Langraiz Okarako noranzkoan jarraitu beharko dugu.

**13** **LANGRAIZ OKA.** Langraizen sarreran tren-geltokia bilatuko dugu, geltokira iritsi gabe aurrerantz jarraituko dugu Zallurtegi, Rubina eta La Caserna kaleetan barrena, eta azken kale horrek burdinbidearen azpiko igarobidera bideratuko gaitu. Ondoren Zadorra ibaia gurutzatuko dugu eta N-1 errepidera iritsiko gara, gaur egun ia trafikorik ez duena, eta errepide horrek Argantzunera zuzenean eramango gaitu.

**20** **ARGANTZUN**

km

**0** ***VITORIA-GASTEIZ.*** *Desde la almendra medieval seguimos en dirección suroeste. Cerca de la catedral nueva habrá que seguir el Paseo de La Florida y las calles Fray Francisco de Vitoria y en dirección a Armentia. Por el Paseo del peregrino, alcanzamos una rotonda a la salida del casco urbano y seguimos por el arcén de la A-4163 hasta la pequeña población de Gometxa.*

**5,5** ***GOMETXA.*** *Como opción para evitar la complicada ascensión al Alto de San Miguel por donde discurre el Camino a pie, los ciclistas podemos seguir paralelamente a la N-102 por las A-4104 y A-4102. Justo antes de una guardería de perros habrá que desviarse de ésta última y seguir sin separarnos de la autovía hasta llegar a una rotonda donde alcanzamos la A-3302. En la rotonda tomamos dirección Subillabide-Mendoza pasando bajo la autovía y una vez al otro lado, habrá que seguir dirección Nanclares de la Oca.*

**13** ***NANCLARES DE LA OCA.*** *A la entrada de Nanclares buscaremos la estación de tren para continuar sin llegar a ésta por las calles Zallurtegi, Rubina y La Caserna, conduciéndonos esta última al paso bajo las vías del propio ferrocarril. Seguidamente se cruza el río Zadorra y alcanzaremos de este modo la N-1, hoy por hoy sin apenas tráfico, que nos hará llegar directamente a La Puebla de Arganzón.*

**20** ***LA PUEBLA DE ARGANZÓN***



# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
# A TENER EN CUENTA

- Gasteizen hainbat murrizketa daude bizikletentzat oinezkoentzako hainbat gunetan. Hirigunean zaudenean, mapan egiten dugun proposamenari jarraitu, ahal duzun neurrian. Abiadura moteldu eta oinezkoak errespetatu.

- *En Vitoria-Gasteiz existen una serie de restricciones para el tránsito por bicicletas en algunas zonas peatonales. Sigue en la medida de lo posible la propuesta que hacemos en el mapa dentro del casco urbano. Disminuye la velocidad y respeta a los peatones.*

- Arreta handiz ibili Gatzaga Buradon eta Briñas artean dagoen Lobera mendateko jaitsieran. Solte dagoen lurrak eta desnibel handiak jokaldi makurra eragin diezazukete.

- *Extrema la precaución en el descenso del Alto de La Lobera entre Salinillas de Buradón y Briñas. La tierra suelta y el fuerte desnivel pueden jugarte una mala pasada.*



# TELEFONO INTERESGARRIAK
# TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Turismo Bulegoa<br>*Oficina de Turismo* | |
| Vitoria-Gasteiz | 945 161 598 / 945 161 599 |
| Miranda de Ebro | 947 320 303 |
| Añanako Koadrilla/Cuadrilla de Añana | 945 351 386 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea (Araba)<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Álava)* | 945 144 794<br>609 472 446 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea (Miranda Ebro)<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Miranda de Ebro)* | 947 314 080<br>671 883 129 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | ((112)) SOS DEIAK |






## Vitoria-Gasteiz > Briñas

| | |
|---|---|
| **Distantzia:** ***Distancia:*** | 49,5 km |
| **Desnibela:** ***Desnivel:*** | 688 m |
| **Denbora, gutxi gor.:** ***Tiempo aprox.:*** | 4h |
| **Zailtasuna:** ***Dificultad:*** | Ertaina *Media* |
| **Zolatutako bide-zorua:** ***Firme pavimentado:*** | 76,3 % |
| **Zolatu gabeko bide-zorua:** ***Firme no pavimentado:*** | 23,7 % |
| **Aldapa handieneko tarteak:** ***Tramos de gran pendiente:*** | Berantilla-Zabalate/Portilla<br>La Lobera-Briñas |




## Vitoria-Gasteiz > Miranda de Ebro

| | |
|---|---|
| **Distantzia:** ***Distancia:*** | 37,5 km |
| **Desnibela:** ***Desnivel:*** | 222 m |
| **Denbora, gutxi gor.:** ***Tiempo aprox.:*** | 3h |
| **Zailtasuna:** ***Dificultad:*** | Erraza *Baja* |
| **Zolatutako bide-zorua:** ***Firme pavimentado:*** | 88,3 % |
| **Zolatu gabeko bide-zorua:** ***Firme no pavimentado:*** | 11,7 % |
| **Aldapa handieneko tarteak:** ***Tramos de gran pendiente:*** | Ez dago<br>No hay |




# 3A Etapa
## LA PUEBLA DE ARGANZÓN (ARGANTZUN > BRIÑAS

km

**20 ARGANTZUN.** Udalerritik aterako gara N-1 errepidetik hegoalderantz, errepidea albo batera utziko dugu Burgetarantz doan saihesbidea hartzeko, eta autobidearen azpitik igaro beharko dugu. Hori koloreko geziek gidatuko gaituzte Euskadin seinale ofizialak berriro aurkitu arte gune txiki horren irteeran. Erromatarren Bide zaharrak Estavilloraino jaitsiaraziko gaitu, eta bertan, irteeran, Frantziako Biderantz jarraitzeko bi aukerak eskainiko zaizkigu.

**26,1 ESTAVILLO.** Santo Domingo de la Calzadara doan Bidea aukeratzen badugu, ezkerralderako desbiderapena hartuko dugu eta partzela-bide lauetan barrena Berantevillarantz eramango gaitu.

**32 BERANTEVILLA.** Berantevilla eta Zanbrana artean Bide ofizialetik egiten den El Encinalerako igoera bizikletaz egitea penagarria izan daiteke. Hori saihesteko aukera dago, Portillako herrigune txikira igotzen den bidetik joanez. Herrigune horretatik, gomendatzen dizuegu Ociotik Gatzaga Buradonera daraman errepide atseginari jarraitzea, eta horrela trafiko handia duen N-124 errepideko tartea saihestuko duzue.

**44,4 GATZAGA BURADON.** Gatzaga eta Briñas artean, Lobera mendatean gure zangoen ahalmen osoa beharko dugu igoeran, eta jaitsieran balaztena, kontu handiz jaitsiz.

**49,5 BRIÑAS**

km

***20 LA PUEBLA DE ARGANZÓN.*** *Salimos del municipio por la N-1 dirección sur y la abandonamos para tomar el desvío a Burgueta que nos hará pasar bajo la autovía. Las flechas amarillas nos guiarán hasta encontrar de nuevo la señalización oficial en Euskadi a la salida de este pequeño núcleo. El viejo Camino de los Romanos nos hará descender hasta Estavillo donde, a la salida, se nos ofrecerán las dos opciones para continuar hacia el Camino Francés.*

***26,1 ESTAVILLO.*** *Si vamos a optar por el Camino que se dirige a Santo Domingo de la Calzada, tomaremos el desvío a la izquierda que nos conduce llaneando por parcelarias hacia Berantevilla.*

***32 BERANTEVILLA.*** *Entre Berantevilla y Zambrana la ascensión a El Encinal por el Camino oficial puede resultar penosa para su realización en bicicleta. Es posible evitarlo por el camino que asciende al pequeño núcleo de Portilla. Desde éste os recomendamos seguir la agradable carretera que conduce a Salinillas de Buradón por Ocio evitando así el tramo por la N-124 con intenso tráfico.*

***44,4 SALINILLAS DE BURADÓN.*** *Entre Salinillas y Briñas por el alto de La Lobera tendremos que poner a prueba primero nuestras piernas en la ascensión y los frenos extremando la precaución en el descenso.*

***49,5 BRIÑAS***

# 3B Etapa
## LA PUEBLA DE ARGANZÓN (ARGANTZUN > MIRANDA DE EBRO

km

**20 ARGANTZUN.** Udalerritik aterako gara N-1 errepidetik hegoalderantz, errepidea albo batera utziko dugu Burgetarantz doan saihesbidea hartzeko, eta autobidearen azpitik igaro beharko dugu. Hori koloreko geziek gidatuko gaituzte Euskadin seinale ofizialak berriro aurkitu arte gune txiki horren irteeran. Erromatarren Bide zaharrak Estavilloraino jaitsiaraziko gaitu, eta bertan, irteeran, Frantziako Biderantz jarraitzeko bi aukerak eskainiko zaizkigu.

**26,1 ESTAVILLO.** Burgosera doan Bidea aukeratu badugu, Armiñonera doan autobidearen sarbideei jarraitu beharko diegu. Zadorra ibaiaren gaineko zubi zaharrak Ribavellosarantz jarraitzeko noranzkoa adieraziko digu.

**32 RIVABELLOSA.** Gure azken udalerri arabarra izango den Rivabellosako irteeran, beste zubi zahar batek oraingoan Bayas ibaia gurutzatzeko aukera emango digu. Beste ibaiertzean gure ezkerralderantz Miranda de Ebrora daraman A-4341 errepidea abiatzen da, eta euria egin badu, Bide ofizialean erraz aurki genezakeen tarte lokazturen bat saihestea ahalbidetuko digu.

**37,5 MIRANDA DE EBRO**

km

***20 LA PUEBLA DE ARGANZÓN.*** *Salimos del municipio por la N-1 dirección sur y la abandonamos para tomar el desvío a Burgueta que nos hará pasar bajo la autovía. Las flechas amarillas nos guiarán hasta encontrar de nuevo la señalización oficial en Euskadi a la salida de este pequeño núcleo. El viejo Camino de los Romanos nos hará descender hasta Estavillo donde, a la salida, se nos ofrecerán las dos opciones para continuar hacia el Camino Francés.*

***26,1 ESTAVILLO.*** *Si hemos optado por el Camino que se dirige a Burgos habrá que seguir por los accesos a la autovía dirección Armiñón. El viejo puente sobre el Zadorra nos indicará la dirección a seguir hacia Ribavellosa.*

***32 RIVABELLOSA.*** *A la salida de ésta que será nuestra última población alavesa, otro viejo puente nos permitirá cruzar en está ocasión el río Bayas. Justo en la otra orilla parte a nuestra izquierda la A-4341 que conduce a Miranda de Ebro y que si ha llovido nos permitirá librarnos de algún tramo embarrado que fácilmente podríamos encontrar en el Camino oficial.*

***37,5 MIRANDA DE EBRO***